# PREMIO
# DE LAS LIBRERÍAS DE NAVARRA
# 2023

# 2023KO
# NAFARROAKO
# LIBURUDENDEN SARIA

ASOCIACIÓN DE
LIBRERÍAS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
LIBURUDENDEN
ELKARTEA

Por sexto año consecutivo la Asociación de Librerías de Navarra Diego de Haro otorga sus premios a los mejores libros editados en España a lo largo del año anterior, en este caso, en 2022.

El Premio de las Librerías de Navarra nace con una vocación clara: compartir con los lectores, nuestros clientes y amigos, textos de calidad y hacerlo de manera conjunta, transversal y colaborativa. Esto supone, en definitiva, subrayar y reforzar nuestro trabajo cotidiano y hacerlo en una puesta en común que nos permite como Asociación intercambiar experiencias lectoras, puntos de vista y, algo de lo que nos sentimos especialmente orgullosos, ofrecernos a la ciudad dando a conocer nuestro oficio.

Como nunca nos cansamos de repetir, formamos parte de la red de comercio de cercanía y nos sentimos cómodos en nuestro papel como agentes culturales, ayudando a desarrollar el tejido cultural de nuestras ciudades y pueblos. Esto se traduce en ofrecer un entorno acogedor y sugestivo, en el cual tenemos la posibilidad de abrir puertas a nuevos mundos, viajar en el tiempo, encontrar personajes desconocidos, desentrañar historias ocultas o visitar lugares ignotos. En definitiva, hacer que el libro de nuestra estantería encuentre al lector que estaba esperando.

Con las tres categorías premiadas, *Castellano*, *Ilustrado* y *Euskera*, tratamos de abarcar un amplio abanico de géneros narrativos - novela, poesía, ensayo, álbum ilustrado o novela gráfica - e intentamos llegar a un gran espectro de nuestro público, de cualquier edad, con un muy variado tipo de intereses y en las dos lenguas oficiales de Navarra.

En el marco de nuestro Premio, hemos recibido a importantes novelistas, ensayistas e ilustradores de talla tanto nacional como internacional, muchos de ellos con amplios currículos y muchos reconocimientos en su oficio. Asimismo, nos han visitado editores y traductoras, figuras fundamentales en el ámbito cultural y en el mercado del libro.

El proceso de selección de los premiados es complejo; la tendencia en la publicación de libros de los últimos cinco años, según datos del Ministerio de Cultura, supera los 60.000 ejemplares, lo que dificulta notablemente no solo nuestras propuestas para el Premio de las Librerías, sino también nuestro trabajo diario.

No cabe duda de que hay en el mercado muchos más libros que, por su calidad, podrían ser merecedores de nuestro premio; sin embargo, hay que elegir una única obra por cada categoría. Todas ellas, galardonadas o no, habitan en nuestras librerías y forman parte de nuestras recomendaciones.

Nuestro agradecimiento va al alumnado de 2º curso de Grado Superior en Técnicas Escultóricas de la Escuela de Arte y Superior de Diseño de Pamplona, especialmente a la profesora Zuriñe Urbeltz, y a Civivox Condestable que nos acoge durante toda la jornada.

# ACTIVIDADES

Los actos del VI Premio de las Librerías de Navarra tendrán lugar en el Palacio del Condestable el viernes **24 de marzo de 2023**:

- **Por la mañana, a las 12:30 en el salón de actos**: entrega de premios a las obras galardonadas, acto en el que estarán presentes autores, editores y las librerías de la Asociación Diego de Haro.

Contaremos con la presencia de:

- **Paco Cerdà**, autor del libro *14 de abril*, premiado en la categoría de libro en Castellano.

- **Luís Solano**, editor de Libros del Asteroide.

- **Angel Erro**, autor del libro *Poema liburu bat*, premiado en la categoría de libro en Euskera.

- **Uxue Razquin** e **Idoia González**, respectivamente editora y responsable de comunicación de Erein Argitaletxea.

- **Araya Goitia**, editora y coordinadora de derechos de la editorial Ekaré (*¡Ugh! Un relato del Pleistoceno*, premiado en la categoría de libro Ilustrado).

- **Alejandra Varela**, diseñadora y directora de arte de Ekaré Europa.

- **Por la tarde, a las 18:00n en la sala nº18**: mesa redonda con los ganadores del Premio, moderada por la periodista **Reyes Ilintxeta**.

CONTACTOS:

- **Paco Cerdà**, autor del libro *14 de abril* - paco-cerda@hotmail.com
- **Luis Solano**, editor - lsolano@librosdelasteroide.com
- **Angel Erro**, autor del libro *Poema liburu bat* - 653070049
- **Uxue Razquin**, editora - uxue@erein.eus - 688784830
- **Idoia González**, responsable de Comunicación de Erein - idoia@erein.eus - 688683456
- **Alejandra Varela**, diseñadora y directora de arte de Ekaré Europa - alejandra@ekare.es
- **Asociación de Librerías de Navarra** - asociaciondiegodeharo@gmail.com

# LIBRERÍAS QUE COMPONEN LA ASOCIACIÓN

## PAMPLONA/IRUÑEA

ABARZUZA
ARCOS
ARISTA
CHUNDARATA
ELKAR COMEDIAS
ELKAR LEIRE
KARRIKIRI
KATAKRAK
MÉNADES
MIRIAM
MUGA
NEREA
SAN PABLO
TROA
UNED PAMPLONA
WALDEN

## SARRIGUREN

LA VALETA

## TAFALLA

IDAZTI

## TUDELA/TUTERA

LETRAS A LA TAZA
SANTOS OCHOA

## ESTELLA/LIZARRA

IRRINTZI




# PREMIO LIBRO EN CASTELLANO

TÍTULO: *14 DE ABRIL*
AUTOR: PACO CERDÀ
EDITORIAL: LIBROS DEL ASTEROIDE

El 14 de abril de 1931 llega a España la Segunda República, tras unas elecciones municipales donde el descontento del pueblo con sus dirigentes se pone de manifiesto.

El ensayo de Paco Cerdà sobre ese día donde tantas vidas cambiaron se forma con una estructura que parece absolutamente incompatible con el hecho que narra, puesto que utiliza las horas canónicas - la división del tiempo empleada en la Edad Media por la mayoría de las religiones - para narrarnos el paso de las horas en un día convulso, donde los poderes fácticos del antiguo régimen, monarquía, clero y militares se ven obligados a tomar difíciles decisiones.

Pero la naturalidad, la frescura con la que el autor relata este episodio clave de la historia de nuestro país nos conmueve por su mirada humana, compasiva, aunque sabiamente distante; nos sitúa en el epicentro de los acontecimientos de aquella jornada, al lado de las gentes, en medio de la calle, pero también en los palacios donde asoma la Historia con mayúscula, aunque siempre a nuestra altura, para vivir junto con todos los protagonistas la emoción, el miedo, la esperanza, el dolor o la incertidumbre de aquellas horas.

Los acontecimientos se narran desde los diferentes puntos de vista de los protagonistas - a veces anónimos o en ocasiones conocidos - sin interferir en sus vidas y, a la vez, dándonos retazos de las mismas; será el lector quién recree en su imaginación el momento exacto de la narrativa, las consecuencias que tienen sus actos y cómo cualquier vida está entretejida con las vidas y sueños de los demás.

El autor consigue conferir a su texto rigor y audacia narrativa a partes iguales, en un libro que nos demuestra que en una revolución no hay solo un epicentro, sino que el hartazgo de una parte de la población ante los abusos cometidos por la otra es contagioso; este tumulto, llegado el momento, puede desembocar en toda una revolución en la cual, a menudo, los ganadores también tienen sus víctimas, donde el deseo de libertad se impone al miedo y la represión de las autoridades y donde el Pueblo, en toda la gran extensión de la palabra, se convierte en héroe.

Un libro que da voz a todos los olvidados de un día clave.




# PREMIO LIBRO EN EUSKERA

TÍTULO: *POEMA LIBURU BAT*
AUTOR: ANGEL ERRO
EDITORIAL: EREIN ARGITALETXEA

Angel Erro juega con todos sus lectores al titular su último poemario como si nos encontrásemos ante un manual de instrucciones para su correcta lectura.

Pero, en realidad, su poesía resulta un camino abierto, dependiendo de lo que cada lector sea capaz de encontrar entre sus versos. El autor la define como un choque entre el momento en que se escribe y el momento en que se lee, es decir, una trampa para unir instantes diferentes, creando un diálogo en el espacio-tiempo. Citando a Antonio Machado: *la poesía paraliza la palabra en el tiempo.*

En este poemario, encontraremos poesías escritas en diferentes épocas y sobre temas dispares, ya que es la recopilación de ideas y escritos acumulados a lo largo de varios años, pudiéndolo considerar como una antología. Los poemas no tienen un orden determinado, lo cual hace que el lector pueda disfrutarlos empezando por cualquiera de ellos.

La visión de su vida, del amor, del deseo y del cariño, impregnan cada una de sus páginas, "creo que he escrito sobre el amor", comenta el autor, el cual, seleccionando imágenes muy claras del día a día como punto de partida, plasma en palabras sus sentimientos hacia ellas, con el dolor y el placer como hilo principal.

Amor en el más amplio sentido de la palabra: entre personas, pero también hacia un lugar, una lengua o hacia la propia poesía. El desamor también asoma por momentos, siendo el lector quién llevará a su territorio las palabras del poeta, el cual define su libro como "la obra del lector".

Sus poemas se pueden ver como un marco que se ciñe a la realidad, la cual va cambiando con el paso del tiempo y la subjetividad de cada lector, siendo el tiempo y la palabra las materias de que está hecho el poema. Ambas materias se condicionan entre ellas: la palabra plasma el tiempo y el tiempo oxida la palabra.

En definitiva, el autor imprime a estos poemas las emociones surgidas de su vida personal y que cada lector puede hacer suyas, siendo el resultado, en palabras de Erro "*un libro que me gustaría leer*". Este motivo, junto con los temas tratados en los poemas, es lo que nos ha llevado a conceder este premio al mejor libro en euskera.




# PREMIO LIBRO ILUSTRADO

TÍTULO: *¡UGH! UN RELATO DEL PLEISTOCENO*
AUTORES: RAFAEL YOCKTENG Y JAIRO BUITRAGO
EDITORIAL: EKARÉ

*¡Ugh!, un relato del Pleistoceno*, obra de Rafael Yockteng y Jairo Buitrago, ambos escritores e ilustradores de reconocido prestigio en América Latina, es un libro singular en su arriesgada manera de exponer la historia que se nos presenta.

Los protagonistas de este curioso álbum ilustrado son los integrantes de un clan prehistórico en su peligroso periplo en busca de un refugio para pasar el crudo invierno que se avecina. La apuesta de los autores es, desde el principio hasta casi el final, la de narrarnos las aventuras y vicisitudes a las que se enfrenta la tribu eludiendo en todo momento la utilización de texto, sin palabra alguna que salga de la boca de sus protagonistas o de elementos explicativos plasmados por escrito; quienes nos cuentan la historia son exclusivamente unos atractivos dibujos en blanco y negro de un excepcional detallismo.

Entre sus múltiples virtudes, cabe destacar un guion perfectamente estructurado, al servicio del aspecto gráfico ya señalado; ambos conceptos se armonizan de forma que sea imposible perder el hilo de tan particular relato, algo que, a priori, podría antojarse un reto harto complicado de sacar adelante.

Página tras página, acompañamos a este grupo de humanos en la caza del bisonte o en la búsqueda de comida y compartimos los peligros que acechan en cada esquina. Vemos cómo los protagonistas lidian con el frío, el hambre, el miedo, con los ataques de animales salvajes o con los inevitables accidentes. Pero también presenciamos el nacimiento de una necesidad muy humana: la de reflejar en imágenes las escenas de la vida cotidiana.

De la mano de una de las más pequeñas integrantes del grupo, contemplamos cómo toman forma las primeras pinturas rupestres, que abren la veda a lo que en un futuro será definido como arte o escritura, y que cambiará para siempre el rumbo de la humanidad.

*¡Ugh! Un relato del Pleistoceno* es, por derecho propio, una experiencia inmersiva que seducirá a todo tipo de público.

# LOS AUTORES

PACO CERDÀ, autor de *14 de abril*. Libros del Asteroide, 2022.
Libro premiado en categoría Castellano.

Paco Cerdà (Genovés, Valencia, 1985). Estudió periodismo en la Universidad de Valencia y ha ejercido su profesión en diferentes medios de comunicación. Si hay algo que destaca en la escritura de Paco Cerdà es su capacidad para poner el foco en las personas menos favorecidas, aquellas que, habitualmente, no tienen voz o, mejor dicho, no encuentran un altavoz suficientemente alto para que el resto las oiga.

Ya en 2015 la ONCE le concedió un premio por "utilizar la palabra como arma para luchar contra las desigualdades". En *Los últimos. Voces de la Laponia española* (Pepitas de calabaza, 2017) analizó el problema de la España deshabitada; con *El peón* (Pepitas de calabaza, 2020) conocimos a diferentes personajes que fueron utilizados como peones.

Su bibliografía incluye también libros escritos en valenciano: *La revolució va de bo! La modernització de la pilota valenciana* (2009) y *El cant socarrat. Les albaes de Xátiva* (2012) y *Un romanç amb Botifarra* (2018) ilustrado por Paco Roca.

No podemos olvidar su labor como editor de La Caja Books, una editorial nacida para entender lo que está pasando en el mundo actual y que a veces no encuentra explicación.

ANGEL ERRO, autor de *Poema liburu bat*. Erein Argitaletxea, 2022.
Libro premiado en categoría Euskera.

Angel Erro (Burlada, 1978). Licenciado en Derecho y Filología Vasca.
En el 2000 recibió el premio que concede el ayuntamiento de Pamplona en el apartado de poesía por la obra *Eroria*.
En el 2001 La Fundación Elkarlanean le concedió la beca Joseba Jaka, fruto de la cual se publicó el libro *Eta Harkadian ni* (2002).
Después de estas dos obras editó otros dos poemarios, *Gorputzeko humoreak* (2005), premio de la Crítica Española, y *Poema liburu bat - irakurtzeko jarraibideak* (2022), libro que ha merecido el XIV Premio Blas Otero-Ángela Figuera, que concede el ayuntamiento de Bilbao. En el 2019 editó el dietario *Lerro etena*.

Asimismo es colaborador habitual de prensa escrita y de la radio y participante en el blog literario *Volgako Batelariak*.

RAFAEL YOCKTENG, ilustrador de *¡Ugh! Un relato del Pleistoceno*. Ekaré, 2022.
Libro premiado en categoría Ilustrado.

Rafael Yockteng (Lima, 1976) es un ilustrador peruano, criado en Colombia, país donde hoy en día reside. Como ilustrador y autor en literatura infantil ha ganado varios premios y distinciones internacionales, entre los que destacan los obtenidos junto a su amigo y autor Jairo Buitrago: el premio A la orilla del viento 2007, por el libro *Camino a casa*, y la mención White Ravens de la Internationale Jugendbibliothek de Munich en el año 2011, por el libro *Eloisa y los bichos*.

El estilo de este ilustrador posee una poderosa narrativa y suele tratar temas sociales que son poco comunes en el campo de la literatura para niños y jóvenes.

Ha publicado en muchos países de Latinoamérica y en España y sus libros han llegado hasta Asia, siendo traducidos al japonés, coreano y chino.

JAIRO BUITRAGO, autor de *¡Ugh! Un relato del Pleistoceno*. Ekaré, 2022.
Libro premiado en categoría Ilustrado.

Jairo Buitrago (Bogotá, Colombia, 1970) es un escritor de libros infantiles, ilustrador e investigador en literatura infantil e historia del cine. Su especialidad son los libros álbum y colabora con ilustradores de diferentes países.

Sus libros han sido traducidos a muchos idiomas europeos y asiáticos, como inglés, portugués, catalán, chino, turco, japonés, coreano o sueco, habiendo sido publicados por importantes editoriales en todo el mundo, así como por el Fondo de Cultura Económica de México.

Ganó los premios A La Orilla del viento 2007, el Premio hispanoamericano de Novela Infantil Castillo 2019, El premio Antonio García Cubas al Mejor Libro mexicano para Niños 2020 y fue nominado al Kirkus Prize en Estados Unidos en el 2019.

Sus libros han sido seleccionados varias veces en la Lista de Honor IBBY y también obtuvo el Premio SER en Brasil y el de ACLI en Colombia.

# 2023KO
# NAFARROAKO
# LIBURU DENDEN SARIA

# PREMIO
# DE LAS LIBRERÍAS DE NAVARRA
# 2023

ASOCIACIÓN DE
LIBRERÍAS
DE NAVARRA
NAFARROAKO
LIBURUDENDEN
ELKARTEA

Seigarren urtez jarraian, Diego de Haro Nafarroako Liburu Denden Elkarteak aurreko urtean Espainian argitaratutako libururik onenei bere sariak eman dizkie, kasu honetan 2022an argitaratutakoei.

Nafarroako Liburu Denden Saria asmo argi batekin sortzen da: kalitatezko testuak irakurleekin, gure bezero eta lagunekin partekatzea eta hau elkarrekin, zeharka eta elkarlanean egitea. Honek, gure eguneroko lana azpimarratzea eta indartzea esan nahi du, eta bateratze-lan baten bitartez egitea, Elkarte bezala aukera ematen diguna irakurketa-esperientziak, ikuspuntuak trukatzea eta, bereziki harro sentiarazten gaituen beste hau, geure buruak hiriari eskaintzea gure lanbidea ezagutaraziz.

Behin eta berriz errepikatzen dugun bezala, hurbileko merkataritza-sareko kide gara, eta eroso sentitzen gara kultura-eragile gisa dugun zereginean, gure hirietako eta herrietako kultura-ehuna garatzen lagunduz. Honek ingurune eroso eta iradokitzailea eskaintzea dakar, eta honetan mundu berriei ateak irekitzeko aukera daukagu, denboran zehar bidaiatzeko, pertsonaia ezezagunak aurkitzeko, ezkutuko istorioak argitzeko edo leku ezezagunak bisitatzeko. Labur esanda, gure apalategiko liburuak zain daukan irakurlea aurkitzen ahalegintzea.

Saritutako hiru kategoriekin, *Gaztelania, Irudiduna eta Euskara*, narrazio genero ugari biltzen saiatzen gara – nobela, poesia, saiakera, album ilustratua edo eleberri grafikoa – eta gure publikoaren espektro handi batera iristen saiatzen gara, edozein adinetakoa, interes mota anitzekoa eta Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan.

Gure Sariaren esparruan, eleberrigile, saiogile eta ilustratzaile garrantzitsuak hartu ditugu, maila nazionalekoak zein nazioartekoak. Horietako asko curriculum zabalekoak dira, errekonozimendu ugari jaso dituztenak beren lanbidean. Era berean, editoreak eta itzultzaileak ere izan ditugu bisitan, kultur arloan eta liburuaren merkatuan funtsezkoak direnak.

Sarituak hautatzeko prozesua konplexua da; azken bost urteetako liburuen argitalpenaren joera, Kultura Ministerioaren datuen arabera, 60.000 aletik gorakoa da, eta horrek nabarmen zailtzen du ez bakarrik Liburu-denden Sarirako gure proposamenak, baita gure eguneroko lana ere.

Zalantzarik gabe, merkatuan askoz liburu gehiago daude, beren kalitateagatik gure saria merezi dezaketenak; hala ere, lan bakarra aukeratu behar da kategoria bakoitzeko. Horiek guztiak, sarituak izan ala ez, gure liburu-dendetan bizi dira eta gure gomendioen parte dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Iruñeko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolako Eskultura Tekniketako Goi Mailako 2. mailako ikasleei, bereziki Zuriñe Urbeltz irakasleari eta egun osoan zehar harrera egiten digun Civivox Kondestableri.

# JARDUERAK

Nafarroako Liburu Denden VI. Sariaren ekitaldiak Kondestablearen Jauregian izanen dira **2023ko martxoaren 24an**, ostirala:

- **Goizean, 12: 30ean, ekitaldi-aretoan:** saritutako lanen sari-banaketa. Bertan, egileak, editoreak eta Diego de Haro Elkarteko liburu-dendak egonen dira.

Bertan izanen ditugu:

- **Paco Cerdà**, *14 de abril* liburuaren egilea, Gaztelaniazko liburuaren kategorian saritua.

- **Luis Solano**, Libros del Asteroide argitaletxearen editorea.

- **Angel Erro**, *Poema liburu bat* liburuaren egilea, Euskarazko liburuaren kategorian saritua.

- **Uxue Razquin eta Idoia González**, hurrenez hurren, editorea eta Erein Argitaletxeko komunikazio-arduraduna.

- **Araya Goitia**, Ekaré argitaletxeko editore eta eskubideen koordinatzailea (*¡Ugh! Un relato del Pleistoceno*, liburu ilustratu kategorian saritua).

- **Alejandra Varela**, Ekaré Europa argitaletxeko diseinatzaile eta arte-zuzendaria.

- **Arratsaldean, 18: 00etan, 18. aretoan**: mahai-ingurua Sariaren irabazleekin, **Reyes Ilintxeta** kazetariak moderatuta.

HARREMANAK:

- **Paco Cerdà**, *14 de abril* liburuaren egilea - paco-cerda@hotmail.com
- **Luis Solano**, editorea - lsolano@librosdelasteroide.com
- **Angel Erro**, *Poema liburu bat* liburuaren egilea- 653070049
- **Uxue Razquin**, editorea - uxue@erein.eus - 688784830
- **Idoia González**, Erein argitaletxeko Komunikazio arduraduna - idoia@erein.eus - 688683456
- **Alejandra Varela**, Ekaré Europa argitaletxeko diseinatzaile eta arte-zuzendaria - alejandra@ekare.es
- **Nafarroako Liburu Denden Elkartea** - asociaciondiegodeharo@gmail.com

# ELKARTEA OSATZEN DUTEN LIBURU DENDAK

## PAMPLONA/IRUÑEA

ABARZUZA
ARCOS
ARISTA
CHUNDARATA
ELKAR COMEDIAS
ELKAR LEIRE
KARRIKIRI
KATAKRAK
MÉNADES
MIRIAM
MUGA
NEREA
SAN PABLO
TROA
UNED PAMPLONA
WALDEN

## SARRIGUREN

LA VALETA

## TAFALLA

IDAZTI

## TUDELA/TUTERA

LETRAS A LA TAZA
SANTOS OCHOA

## ESTELLA/LIZARRA

IRRINTZI




# SARIA GAZTELANIAZKO LIBURUA

IZENBURUA: *14 DE ABRIL*
EGILEA: PACO CERDÀ
ARGITALETXEA: LIBROS DEL ASTEROIDE

1931ko apirilaren 14an Bigarren Errepublika iritsi zen Espainiara, herriak bere buruzagiekin zuen atsekabea agerian geratu zen udal-hauteskunde batzuen ondoren.

Paco Cerdàren saiakera egun horri buruz, non hainbeste bizitza aldatu ziren, kontatzen duen gertaerarekin erabat bateraezina dirudien egitura batekin eratzen da, ordu kanonikoak erabiltzen baititu — erlijio gehienek Erdi Aroan erabilitako denboraren banaketa — egun nahasi batean emandako orduen igarotzea kontatzeko, non antzinako erregimenaren botere faktikoak, monarkia, kleroa eta militarrak, erabaki zailak hartzera behartuta dauden.

Baina egileak gure herriaren historiaren pasarte giltzarri hau kontatzeko erabiltzen duen naturaltasunak, freskotasunak, hunkitu egiten gaitu bere giza begiradagatik, bihozbera, nahiz eta zentzuz urrunduta; egun hartako gertaeren epizentroan kokatzen gaitu, pertsonen ondoan, kalearen erdian, baina baita Historia maiuskulaz agertzen den jauregietan ere, nahiz eta beti gure parean, protagonista guztien alboan ordu haietako emozioa, beldurra, itxaropena, mina edo ziurgabetasuna bizitzeko.

Gertaerak protagonisten ikuspuntu desberdinetatik kontatzen dira – batzuetan anonimoak edo batzuetan ezagunak –, haien bizitzetan nahasi gabe eta, aldi berean, haien bizitzetako atalak jasoz; irakurlea izanen da bere irudimenean narratibaren une zehatza birsortuko duena, haien ekintzek dituzten ondorioak eta nola edozein bizitza besteen bizitza eta ametsekin lotuta dagoen.

Egileak bere testuari zorroztasuna eta narrazio-ausardia zati berdinetan ematea lortzen du, iraultza batean ez dagoela epizentro bat bakarrik erakusten digun liburu batean, baizik eta biztanleriaren zati batek besteak egindako gehiegikerien aurrean duen betekada kutsakorra dela; matxinada honek, unea iritsitakoan, iraultza oso bat ekar dezake, non, sarri, irabazleek ere beren biktimak dituzten, non askatasun-nahia agintarien beldurrari eta errepresioari gailentzen zaien, eta non Herria, hitzaren luzapen handi osoan, heroi bihurtzen den.

Egun giltzarri bateko ahaztu guztiei ahotsa ematen dien liburua.




# SARIA EUSKARAZKO LIBURUA

IZENBURUA: *POEMA LIBURU BAT*
EGILEA: ANGEL ERRO
ARGITALETXEA: EREIN

Angel Erro bere irakurle guztiekin jolasten da bere azken poema-liburuari jarritako izenburuarekin, behar bezala irakurtzeko jarraibideen eskuliburu baten aurrean bageunde bezala.

Baina, egia esan, bere poesia bide ireki bat da, irakurle bakoitzak bere lerroen artean aurki dezakeenaren araberakoa. Egileak idazten den unearen eta irakurtzen den unearen arteko danbateko bat bezala definitzen du, hau da, une desberdinak batzeko tranpa bat, espazio-denboran elkarrizketa bat sortuz. Antonio Machado aipatuz, *poesiak hitza denboran geldiarazten du*.

Hainbat garaitan idatzitako poesiak eta gai desberdinei buruzkoak aurkituko ditugu poema-liburu honetan, hainbat urtetan zehar pilatutako ideia eta idazkien bilduma baita, eta antologiatzat har daiteke. Poemek ez dute ordena jakin bat, eta, beraz, irakurleak gozatu ahal izanen ditu horietako edozeinetatik hasita.

Bere bizitzaren, maitasunaren, desiraren eta kariñoaren ikuspegiak bere orrialde bakoitza blaitzen du, "maitasunari buruz idatzi dudala uste dut", dio egileak, zeinak, egunez eguneko irudi oso argiak abiapuntu gisa hautatuz, haienganako bere sentimenduak hitzetan islatzen dituen, mina eta atsegina hari nagusitzat hartuta.

Maitasuna hitzaren zentzurik zabalenean: pertsonen artekoa, baina baita leku batekiko, hizkuntza batekiko maitasuna edo poesiarekikoa ere. Desamodioa ere agertzen da une batzuetan, eta irakurleak eramanen ditu bere lurraldera poetaren hitzak, zeinak bere liburua "irakurlearen obra" bezala definitzen duen.

Bere poemak errealitatera mugatzen den esparru bat bezala ikus daitezke, denboraren poderioz eta irakurle bakoitzaren subjektibotasunarekin aldatuz doana, denbora eta hitza izanik poema egiteko erabili diren gaiak. Bi gaiak elkarren artean baldintzatzen dira: hitzak denbora irudikatzen du eta denborak hitza herdoiltzen du.

Hitz batez, egileak bere bizitza pertsonaletik sortutako emozioak inprimatzen dizkie poema hauei, irakurle bakoitzak bere egin ditzakeenak, eta horren emaitza, Erroren hitzetan, *"irakurri nahiko nukeen liburu bat"* . Arrazoi hau, poemetan aukeratutako gaiekin batera, eraman gaitu sari hau ematera euskarazko libururik onenari.




## SARIA LIBURU ILUSTRATUA

IZENBURUA: *¡UGH! UN RELATO DEL PLEISTOCENO*
EGILEAK: RAFAEL YOCKTENG ETA JAIRO BUITRAGO
ARGITALETXEA: EKARÉ

*¡Ugh!, un relato del Pleistoceno*, Rafael Yockteng eta Jairo Buitragoren lana, biak ere Latinoamerikan ospe handia duten idazle eta ilustratzaileak, liburu berezia da aurkezten zaigun istorioa azaltzeko duen modu ausartean.

Album ilustratu bitxi honetako protagonistak historiaurreko klan bateko kideak dira, datorren negu gordina igarotzeko aterpe baten bila egiten duten bidaia arriskutsuan. Egileen apustua, hasieratik ia amaieraraino, tribuak aurre egin behar dien abenturak eta gorabeherak kontatzea da, une oro testuaren erabilera saihestuz, protagonisten ahotik edo idatziz islatutako azalpen-elementuetatik ateratzen den hitzik gabe; istorioa kontatzen digutenak zuri-beltzeko marrazki erakargarriak baino ez dira, xehetasun apartekoak.

Bere bertute ugarien artean, ondo egituratutako gidoi bat nabarmendu behar da, lehen aipatutako alderdi grafikoaren zerbitzura dagoena; bi kontzeptuak harmonizatu egiten dira, hain kontakizun bereziaren haria galtzea ezinezkoa izan dadin, eta hori, a priori, aurrera ateratzeko oso zaila den erronka bat izan liteke.

Orrialdez orrialde, bisontea ehizatzen edo janaria bilatzen laguntzen dugu giza talde hau, eta izkina bakoitzean gertatzen diren arriskuak partekatzen ditugu. Protagonistek hotzarekin, gosearekin, beldurrarekin, animalia basatien erasoekin edo halabeharrezko istripuekin nola borrokatzen duten ikusten dugu. Baina baita giza premia baten sorrera ere ikusten dugu: eguneroko bizitzako agertokiak irudietan islatzea.

Taldeko kide txikienetako baten eskutik, lehen labar-pinturek nola hartzen duten forma ikusiko dugu, etorkizunean arte edo idazketa gisa definituko denari atea irekitzen diotenak, eta gizateriaren norabidea betiko aldatuko dutenak.

*Ugh! Un relato del Pleistoceno*, berezko eskubidez, murgiltze esperientzia bat da, publiko mota oro liluratuko duena.

# EGILEAK

**PACO CERDÀ**, *14 de abril* **liburuaren egilea**. Libros del Asteroide, 2022. Gaztelaniazko kategorian saritutako liburua.

Paco Cerdà (Genovés, Valentzia, 1985). Valentziako Unibertsitatean kazetaritza ikasi zuen eta hainbat komunikabidetan jardun du. Paco Cerdàren idazkeran nabarmentzen den zerbait bada, egoera ahulenean dauden pertsonengan arreta jartzeko duen gaitasuna da, normalean ahotsik ez dutenengan edo, hobeto esanda, bozgorailu aski altu bat aurkitzen ez dutenengan gainontzekoek entzun ditzaten.

2015ean jada, ONCEk sari bat eman zion "hitza desberdintasunen aurka borrokatzeko arma bezala erabiltzeagatik". *Los últimos. Voces de la Laponia española* (Pepitas de calabaza, 2017) liburuan jenderik gabeko Espainiaren arazoa aztertu zuen; *El peón* (Pepitas de calabaza, 2020) liburuarekin peoi bezala erabili ziren hainbat pertsonaia ezagutu genituen.

Bere bibliografiak valentzieraz idatzitako liburuak ere baditu: *La revolució va de bo! La modernització de la pilota valenciana* (2009) eta *El cant socarrat. Les albaes de Xátiva* (2012) eta *Un romanç amb Botifarra* (2018), Paco Rocak ilustratua.

Ezin dugu ahaztu La Caja Books argitaletxeko editore gisa egindako lana. Argitaletxea gaur egungo munduan gertatzen ari dena ulertzeko sortu zen, eta batzuetan azalpenik aurkitzen ez duena.

**ANGEL ERRO**, *Poema liburu bat* **liburuaren egilea**. Erein Argitaletxea, 2022. Euskara kategorian saritutako liburua.

Angel Erro (Burlata, 1978). Zuzenbidean eta Euskal Filologian lizentziatua. 2000. urtean Iruñeko Udalak poesiaren alorrean ematen duen saria jaso zuen *Eroria* lanagatik.
2001ean, Elkarlanean Fundazioak Joseba Jaka beka eman zion, eta horren ondorioz argitaratu zuen *Eta Harkadian ni* (2002) liburua.

Bi lan hauen ondoren, beste bi poema-liburu argitaratu zituen: *Gorputzeko humoreak* (2005), Espainiako Kritikaren saria, eta *Poema liburu bat - irakurtzeko jarraibideak* (2022), Bilboko Udalak ematen duen Blas Otero-Ángela Figuera XIV. Saria. 2019an *Lerro etena* dietarioa argitaratu zuen.

Era berean, prentsa idatziaren eta irratiaren ohiko kolaboratzailea da, eta *Volgako Batelariak* blog literarioan parte hartzen du.

RAFAEL YOCKTENG, *¡Ugh! Un relato del Pleistoceno* liburuaren ilustratzailea. Ekaré, 2022.
Ilustratu kategorian saritutako liburua.

Rafael Yockteng (Lima, 1976) ilustratzaile perutarra da, Kolonbian hazia, eta gaur egun bertan bizi da. Haur literaturako ilustratzaile eta egile gisa, nazioarteko hainbat sari eta ohore irabazi ditu, besteak beste nabarmentzen dira Jairo Buitrago lagun eta egilearekin batera lortutakoak: 2007ko A la orilla del viento saria, *Camino a casa* liburuarengatik, eta Municheko Internationale Jugendbibliothek erakundearen White Ravens aipamena 2011. urtean, *Eloisa y los bicho*s liburuarengatik.

Ilustratzaile honen estiloak kontatzeko abilezia indartsua du, eta haur eta gazteentzako literaturaren arloan oso ohikoak ez diren gai sozialak jorratu ohi ditu.

Latinoamerikako herrialde askotan eta Espainian argitaratu du eta bere liburuak Asiaraino iritsi dira, japonierara, koreerara eta txinerara itzulita.

JAIRO BUITRAGO, *¡Ugh! Un relato del Pleistoceno liburuaren egilea*. Ekaré, 2022.
Ilustratu kategorian saritutako liburua.

Jairo Buitrago (Bogota, Kolonbia, 1970) haur-liburuen idazlea da, haur literaturan eta zinemaren historian ilustratzailea eta ikertzailea. Bere espezialitatea album liburuak dira eta herrialde ezberdinetako ilustratzaileekin kolaboratzen du.

Bere liburuak Europako eta Asiako hizkuntza askotara itzuli dira, hala nola ingelesera, portugesera, katalanera, txinerara, turkierara, japonierara, koreerara edo suedierara. Mundu osoko argitaletxe garrantzitsuek argitaratu dituzte, baita Mexikoko Ekonomia Kulturako Funtsak ere.

Sari hauek irabazi ditu: 2007ko A La Orilla del viento saria, 2019ko Castillo Haurrentzako Eleberriaren Hispanoamerikarraren Saria, Antonio García Cubas saria Mexikoko haurrentzako Liburu Onenari 2020. urtean, eta Kirkus Prize sarirako izendatu zuten AEBetan 2019an.

Bere liburuak hainbat aldiz hautatuak izan dira IBBY Ohorezko Zerrendan, eta SER saria ere eskuratu zuen Brasilen eta ACLIrena Kolonbian.